



Pertsona guztien giza eskubideak

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2021eko urria**



**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

PERTSONA GUZTIEN GIZA ESKUBIDEAK

[Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak](#) 13 eskubide zibil eta politiko jasotzen ditu (hala nola bizitzeko eskubidea, tortura-debekua, epaiketa bidezkoa izateko eskubidea, erlijio-eta adierazpen-askatasuna). Gainera, beste eskubide batzuk eransten dituzten [protokoloak](#) ditu. Eragin handieneko ituna da; izan ere, eskubideak aitortzeaz gain, urraketa salatzeko [auzitegia](#) sortzen du (ikus gehiago, hemen: "Zure giza eskubideen bermeak"). Europako Hitzarmena baliozkoa da Europako 47 herrialdetan, Europako Kontseilua osatzen duten herrialdeetan, hain zuzen ere. 1950ean egin zen, eta, harrezkero, behin baino gehiagotan aldatu da. Espainian, 1977tik indarrean dago.

[Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean](#) Europako Hitzarmenean baino eskubide gehiago sartzen dira, eta eduki zehatzagoa du. Nazio Batuetan prestatu zen 60ko hamarraldian, eta 1976an indarrean jarri zen. Espainiak 1977an berretsi zuen eta, gaur egun, ia munduko herrialde guztiek berretsi dute. Herrialde bakoitzean ituna betetzen dela ikuskatzeko nazioarteko adituek osatutako [batzordea](#) du (ikus gehiago, hemen: "Zure giza eskubideen bermeak").

[Europako Gutun Sozialak](#) lan- eta gizarte-eskubideak ditu xede: lanerako eskubidea; lan-baldintza bidezkoak eta seguruak; behar adinako ordainsaria; negozioazio kolektiboa; lanbide-prestakuntza; gizarte-segurantza eta -laguntza edo osasuna; amen, haurren eta desgaitasuna duten pertsonen babesa. Itun osoa da guztiz, eta eskubideak aipatzeaz gain, haietako bakoitzerako betebeharrak zehatzen zerrenda jasotzen du, betetzen direla bermatze aldera. Gutunaren lehenengo bertsioa 1961ekoa da. Geroago, 1996an, berrikuspen bat egin zen, eta eskubide gehiago jaso ziren, hala nola etxebizitzarako eskubidea, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako babesa, langileei kontsulta egiteko eskubidea, eta kaleratzea edo enplegatzailearen kaudimengabezia badago, babesa. Hura betetzen dela ikuskatzeko [adituen batzorde](#) bat dago (ikus "Zure giza eskubideen bermeak"). Espainiak gutunaren lehenengo bertsioa 1980an berretsi zuen, eta bertsio berretsia, 2021ean. Gehiago jakiteko, Espainian berrikusitako gutuna indarrean jarri zela-eta Arartekoak argitaratutako informazio-liburuxka hau irakurri dezakezu.

[Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna](#) Nazio Batuetan landu zen Eskubide Zibil eta Politikoen Itunarekin batera, eta 1976an jarri zen ere indarrean. Hainbat eskubide jasotzen ditu, adibidez: lanerako, sindikatu-askatasunerako edo bizitza-maila egokirako eskubidea, osasunerako, hezkuntzarako edo kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea. Espainiak 1977an berretsi zuen. Eskubide Zibil eta Politikoen Itunak bezala, nazioarteko adituek osatutako [batzorde](#) bat du, herrialde bakoitzean ituna betetzen dela ikuskatzeko (ikus gehiago, hemen: "Zure giza eskubideen bermeak").

[Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna](#) nazioarteko testu guztien artetik berriena eta modernoena da. 2009an indarrean jarri zen EBko herrialde guztietan, Europar Batasuna sortzeko itunetan egindako aldaketa baten zati gisa. Era guztietako eskubideak jasotzen ditu: zibilak, politikoak, sozialak eta kulturalak. Gainera, sortu berriak diren eskubideak jasotzen ditu, hala nola datu pertsonalak babesteko eskubidea edo bioteknologiaren erabilerari buruzkoak. Gutun honen bidez, lehenik eta behin Europar Batasuneko erakundeak ([Europako Parlamentua](#), [Europako Batzordea](#), [Kontseilua](#), [Justizi Auzitegia](#)) behartzen ditu eskubideak errespetatzera, eta baita EBko kide diren herrialdeetako erakundeak ere, baina soilik EBko araudia aplikatzen edo betearazten ari direnean.